

Diploma banaketa Goi Mailako Heziketako Zikloetako ikasleei

2013/07/04

Goi Mailako Heziketa Zikloetako 2011-2012 ikasturteko 76 ikasleek egindako lana errekonozitzen duen diploma jaso zuten atzo, ondorengoko espezialidadekoak:

- Automatizazioa eta Robotika Industrialeko Goi-mailako Teknikaria
- Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuetako Goi-mailako Teknikaria
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioiko Goi-mailako Teknikaria
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi-mailako Teknikaria
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioa Programatzeko Goi-mailako Teknikaria
- Mekatronika Industrialeko Goi-mailako Teknikaria

Ekitaldian Natividad Herrastik parte hartu zuen. Natividad Herrasti Informazio eta teknologietan oinarritutako I+G+b proiektuen garapenean aditua da eta 2008. urtetik Arrasateko Microsoft Berrikuntza Zentroa zuzentzen du. Zentro horren misioa aberastasuna sortzea da, Smart Citi-en arloan garatutako produktu, zerbitzu eta aplikazio berrien bidez. Bestetik, Jesus Lizarragak, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko irakaslea denak eta teknologia berrien ezagutza handia duenak, "Gailu mugikorren eta Pc-aren ondorengo aroa"ren inguruko aurkezpen txiki bat egingo du.

Ekitaldia bukatu ondoren, ETIC enpresak (Embedded Technologies Innovation Center) gidatutako erakusketa egin zen, eta bertan egungo eta etorkizuneko gailu informatikoak ikusteko aukera izan zen.



MU-ko ikasleak